a m a r a b e r r i k o e g u n k a r i a

72. zb

maiatzak 21 osteguna

ABE



Eneko, Joana, Nora eta Patri

www.amaraberri.org abcomenius@euskalnet.net

97 lagun hil dira armadako egazkin baten ondorioz

Armadako hegazkin baten istripua izan zen atzo goizean Indonesian, Java irlan; eta ondorioz 97 pertsona hil ziren, gehienak militarrak eta haien senideak.

Oraindik ez dakite zergatik gertatu zen istripua. Hegazkinak lehengo lau etxebizitzen kontra jo eta barruan zeuden bi pertsona hil zituen. Ondoren arroz-soro batean jo zuen.

Gaur greba

Gaurko, maiatzak 21 osteguna, greba orokorra egiteko deia zegoen Gipuzkoan, Araban, Bizkaian eta Nafarroan. Irakasle batzuek etorri dira, baina beste batzuk ez eta hauen ikasleak patioan daude.

e d i t o r i a l a

Kaixo hemen Eneko, Nora, Joana eta Patricia gaude. Espero dugu gaur egin dugun ABEarekin ondo pasatzea. Egin dugun ABEa saski naski, lumaren kilima....ikusiko dituzu eta agian zuk egin duzun gauza bat ateratzen da.

a u r k i b i d e a

1.- PORTADA:Albisteak
2.- ELKARRIZKETA:Juales eta Amandori
3.- SASKI NASKI:La aventura de Masut
4.- LUMAREN KILIMA:Eskutitza
5.- GU ERE IDAZLE:Pertsonai misteriotsua
6.- ENTRETENIGARRIAK:Hieroglifikoak

kiroldegia bai

Gure ondoko parkean kirol-degitxo bat egin nahi dute, baina heldu batzuk eta bizi-lagunek protesta egin dute. buila asko sortu daitekelako baloiarekin. Guraso batzuk berriz bai. nahi dute. Azke-nean ados jarri dira eta egingo dute eskola ondoan belarra dagoen tokian.

ELKARRIZKETA

Elkarrizketa Amando eta Jualesi

AMANDO

1- Zergatik ez duzu greba egin?
Grebaren arrazoiak oso garbi ez neuzkalako.

2- Bidaiatzea gustatzen zaizu?
bai, asko eta ahal dudanean egiten dut.

3- Zure lana gustatzen zaizu?
Bai asko, sormenezko lana delako

4-Eskonduta zaude?
bai

5-Ze gustatzen zaizu geihago Morlans a la Ferrerias?
Morlans berrian egotea gustatuko litzaidake

6-Juales eta zu lagunak zarete?
Bai, oso ondo konpontzen ge-ra.



JUALES

1-Zergatik ez duzu greba egin?
Uste dudalako lehenengo pauso batzuk eman behar direla.

2-Bidaiatzea gustatzen zaizu?
Bai, asko.

3-Zure lana gustatzen zaizu?
Bai, asko.

4-Eskonduta zaude?
bai

5-Ze gustatzen zaizu gehiago Morlans ala Ferrerias?
Ferrerias eskola, jolastokia Mor-lans.

6-Amando eta zu lagu-nak zarete?
Bai, Lagunak gara.

s a s k i n a s k i

La aventura de Masut

Érase una vez un plástico parlante llamado Masut. Vivía en Francia (en París) y allí le gustaba hacer amigos. Era muy travieso: dejaba el ordenador encendido, dejaba los juguetes tirados, etc. Le gustaba mucho hablar, pero un día se quedó sin voz y como se sentía triste se fue de casa buscando la solución de su problema.

Recorrió casi todo el mundo para encontrar su voz. estuvo en Inglaterra, luego en Portugal y al final llegó a China. Aquí le sucedió algo extraño, iba caminando por la muralla China y de repente se asomó y vio un enorme dragón de dos cabezas. Masut le contó su problema por escrito, ya que no podía hablar. El dragón le dijo que tenia una colección de voces guardada en el fuego verde de su boca.

Le enseñó algunas voces, pero Masut no encontraba la suya. Cuando estaba buscando su voz se encontró con otro plástico parlante llamado Purco. Éste le dijo que tenía un amigo mago y fueron a pedirle ayuda. El mago les acompañó a la montaña misteriosa. Allí encontraron el unicornio mágico que le devolvió la voz a Masut. Final mente, el unicornio abrió una puerta mágica y todos se fueron agotados a sus casas.

Egileak: Urdinak,
Beltzak eta Laranjak.

LUMAREN KILIMA

ESKUTITZA

Kaixo NIOR:

Gustatzen zaizu jarri dizudan izena? Niri bai, baina nahiago baduzu ahal dizut nire ordenagailua deitu. Barkamena eskatu nahi dizut zuri hainbeste lan emateagatik.

Baina orain dela gutxi oporretan egon ginen, argazki gehiegi atera genituen eta orain zuk gorde behar dituzu, lasai ia gutxi falta da!

Nik orain gehiago erabiltzen zaitut, etxeko lanak zure buruan gorde behar ditudalako eta orain askoz hobeto ibiltzen dakidalako eta joku gehiago ditudalako. Nire anaiak asko erabiltzen zaitu etxeko lanak egiteko eta bere kapritxoetan ibiltzeko. Nire aitak gutxi erabiltzen du eta suposatzen dut jakingo duzula zertan ibiltzen den, baina pista txiki bat emango dizut: beti interneten bizikletari buruz bilatzen duena da, badakizu ezta? Bai badakit baietz. Nire ama ere asko ibiltzen da zurekin, nire anaia bezala; baina nire ama, nire anaia ez bezala, gauza garrantzitsuak egiteko.

Ez uste nik ez dudala zurekin asko jolasten, ez dudalako zurekin egon nahi. Egia esanik zurekin egon nahi nuke, baina zure lagunak pantaiak nire begiak estropeatzen dizkit eta nire aitak ez dit uzten zurekin denbora asko egoten. Baina lasai, beti zure ondoan egiten dut lo eta denbora asko zure ondoan pasatzen dut.

Beno agur esan behar dizut.

AGUR!!!!!!

Egilea:Idoia Aramburu

Pertsonai Misteriotsua

Cuerei dazie

Guk pentsatu dugun pertsonai misteriotsua oso-oso perfektua da. Serie batean ateratzen da eta oso dibertigarria da, protagonistaren abizenak seriean izena ematen dio. Arratsaldean 8:15etan botatzen dute (bakeroen filmen ondoren). Bi laguntzaile ditu, biak neskak dira. Ilea piska bat kizkurra du, beltzmarroizka du, kolorea noski. Detektibea da. Bere emaztea kotxe bonba batean hil zen. Honen izena Trudi zen eta asko maite zuten elkar. Berak etengabe gogoratzen du. Pertsonai misteriotsu honek beldurra die alturei eta beste gauza askori ere. Sikologo batera joaten da bere erokeri guztiak lantzera. Baina bestalde erokeri guzti hoiek ematen dizkiote halako grazia eta ospea. Adibidez ezin du beste edonork ikututako zerbait ikutu, beti eskua garbitu edo babestu izaten ditu etengabe “toallita toallita” eskatuz. ETBean ateratzen da serie hau. Arratsaldeko 8:15etan botatzen dute baino beste batzuetan 8:00etan

NOR DA ?

Egilea:Nerea Arcos

abe hitza aurkitu

portadakoak ez du balio

entretenigarriak

ENTRETENIGARRIAK

Zer toki da?

Zer hitz da?

ekoa

Egilea:Maider Igoa